b) Gutxieneko programa: etxebizitza guztietan gutxieneko azalera erabilgarriak ondokoak izango dira:

– Logela bakarreko etxebizitzak:

Egongela - jangela - sukaldea: 18 m<sup>2</sup>.

Egongela - jangela: 14 m<sup>2</sup>.

Sukaldea: 5 m<sup>2</sup>.

Egongela: 12 m<sup>2</sup>.

Sukaldea - jangela: 7 m<sup>2</sup>.

Logela: 10 m<sup>2</sup>.

Bainua - komuna: 3,5 m<sup>2</sup>.

– Bi logelako etxebizitzak:

Egongela - jangela - sukaldea: 20 m<sup>2</sup>.

Egongela - jangela: 16 m<sup>2</sup>.

Sukaldea: 6 m<sup>2</sup>.

Egongela: 14 m<sup>2</sup>.

Sukaldea - jangela: 8 m<sup>2</sup>.

Logela nagusia: 10 m<sup>2</sup>.

Banako logela: 6 m<sup>2</sup>.

Bainua - komuna: 3,5 m<sup>2</sup>.

– Hiru logelako etxebizitzak:

Egongela - jangela - sukaldea: 22 m<sup>2</sup>.

Egongela - jangela: 18 m<sup>2</sup>.

Sukaldea: 7 m<sup>2</sup>.

Egongela: 16 m<sup>2</sup>.

Sukaldea - jangela: 9 m<sup>2</sup>.

Logela nagusia: 10 m<sup>2</sup>.

Logela bikoitza: 8 m<sup>2</sup>.

Banako logela: 6 m<sup>2</sup>.

Bainua: 3,5 m<sup>2</sup>.

Komuna: 2,5 m<sup>2</sup>.

– Lau logelako etxebizitzak:

Egongela - jangela - sukaldea: 24 m<sup>2</sup>.

Egongela - jangela: 20 m<sup>2</sup>.

Sukaldea: 8 m<sup>2</sup>.

Egongela: 18 m<sup>2</sup>.

Sukaldea - jangela: 10 m<sup>2</sup>.

Logela nagusia: 10 m<sup>2</sup>.

Logela bikoitza: 8 m<sup>2</sup>.

Banako logela: 6 m<sup>2</sup>.

Bainua: 3,5 m<sup>2</sup>.

Komuna: 2,5 m<sup>2</sup>.

– Gela ezberdinen oin-azalera ondoko gutxieneko diametro duen zirkulua inskribatu ahal izango da:

Egongela - sukaldea - jangela, egongela - jangela, egongela: 2,80 m.

Sukaldea: 1,60 m.

Logela nagusia: 2,50 m.

Gainerako logelak: 1,90 m.

– Gutxieneko zabalera librea:

Eraikuntza berrietan Eusko Jaurlaritzako Irisgarritasunaren 68/2000 Dekretuan eskatutako zehaztapenak bete beharko dira.

b) Programa mínimo: En todas las viviendas las superficies mínimas, útiles serán las siguientes:

– Viviendas de 1 dormitorio:

Estar - comedor - cocina: 18 m<sup>2</sup>.

Estar - comedor: 14 m<sup>2</sup>.

Cocina: 5 m<sup>2</sup>.

Estar: 12 m<sup>2</sup>.

Cocina - comedor: 7 m<sup>2</sup>.

Dormitorio: 10 m<sup>2</sup>.

Baño - aseo: 3,5 m<sup>2</sup>.

– Viviendas de 2 dormitorios:

Estar - comedor - cocina: 20 m<sup>2</sup>.

Estar - comedor: 16 m<sup>2</sup>.

Cocina: 6 m<sup>2</sup>.

Estar: 14 m<sup>2</sup>.

Cocina - comedor: 8 m<sup>2</sup>.

Dormitorio principal: 10 m<sup>2</sup>.

Dormitorio individual: 6 m<sup>2</sup>.

Baño - aseo: 3,5 m<sup>2</sup>.

– Viviendas de 3 dormitorios:

Estar - comedor - cocina: 22 m<sup>2</sup>.

Estar - comedor: 18 m<sup>2</sup>.

Cocina: 7 m<sup>2</sup>.

Estar: 16 m<sup>2</sup>.

Cocina - comedor: 9 m<sup>2</sup>.

Dormitorio principal: 10 m<sup>2</sup>.

Dormitorio doble: 8 m<sup>2</sup>.

Dormitorio individual: 6 m<sup>2</sup>.

Baño: 3,5 m<sup>2</sup>.

Aseo: 2,5 m<sup>2</sup>.

– Viviendas de 4 dormitorios:

Estar - comedor - cocina: 24 m<sup>2</sup>.

Estar - comedor: 20 m<sup>2</sup>.

Cocina: 8 m<sup>2</sup>.

Estar: 18 m<sup>2</sup>.

Cocina - comedor: 10 m<sup>2</sup>.

Dormitorio principal: 10 m<sup>2</sup>.

Dormitorio doble: 8 m<sup>2</sup>.

Dormitorio individual: 6 m<sup>2</sup>.

Baño: 3,5 m<sup>2</sup>.

Aseo: 2,5 m<sup>2</sup>.

– En la superficie en planta de las diferentes estancias se podrá inscribir un círculo con el siguiente diámetro mínimo:

Estar - cocina - comedor, estar - comedor, estar: 2,80 m.

Cocina: 1,60 m.

Dormitorio principal: 2,50 m.

Resto de dormitorios: 1,90 m.

– Anchura libre mínima:

En las nuevas edificaciones deberán cumplirse las determinaciones exigidas en el Decreto 68/2000 de Accesibilidad del G.V.



– Gutxieneko altuera librea:

Etxebizitza unitate osoan gutxieneko altuera librea 2,50 m-koa izango da, bainugeletan, korridoreetan eta bilketa gela txikitetan edo pertsonen egonaldi luzeetarako ez diren bestelako espazioetan izan ezik, non 2,25 m-ra murriztu ahal izango den.

Era berean, teilatupeko espazioak pertsonen egonalarako erabiltzea onartuko da baldin eta haien altuera librea zehaztutako gutxienekoa edo handiagoa denean bere azaleraren % 40an.

Ateek gutxienez 2,00 m-ko altuera izango dute.

3. Argiztapen eta aireztapeneko oinarritzko baldintzak:

a) Etxebizitza guztiek, gutxienez, eraikinaren kanpoaldeko fatxadara ematen duten bi bao edukiko dituzte, egongela gisa erabiliko direnak, egongela-logela edo sukalde-egongela modalitateetan. Kasu honetan, fatxadaren aurrealdea gutxienez 6,00 m-koa izango da eta aireztapen eta argiztapen baoak, gutxienez, esparruaren oin azaleraren % 30 izango dira.

b) Egongela, logela, sukalde eta jangela gisa erabiliko diren espazioek argiztapen eta aireztapen naturaleko baoak izango dituzte, zuzenean kanpoalderantz –edo bestela neurri egokiekina–, eta gutxienez bere eremuaren 1/3ean erabilgarriak. Baoen eremua guztira, gutxienez, dagokion esparruaren oin azaleraren % 10 izango da eta, betiere, gutxienez 1,00 m<sup>2</sup>-koa izango da.

c) Bainugelek gutxienez 0,40 m<sup>2</sup>-ko aireztapen-baoak izango dituzte eta komunek (komuna eta konketa), 0,25 m<sup>2</sup>-koak. Bao horiek ondoko sistemetakoa batekin ordezkatu ahal izango dira:

– Hodi bidezko aireztapena, indarrean dauden arau teknikoaren arabera.

– Bitarteko mekanikoen eragindako aireztapena, gutxienez 300 m<sup>3</sup>/ordu emaria bermatuko dutenak.

d) Sukaldeek ondoko aireztapen eta ke hustuketa elementuak izango dituzte:

– Lokalaren aireztapen orokorrera zuzendutako hodi bat; horretarako, kolektore orokorreko konponbideak onartzen dira.

– Hodi independente bat, sukaldetik datozen ke eta gasen hustuketa aktibatu batera zuzendua. Hustuketa aktibatua gelan sartuta badago, hodi horrek 300 m<sup>3</sup>/ordu erazketa ziurtatuko duen aireztagailu zentrifugoa izan beharko du.

– Berogailuaren eta ur beroaren galdararen errekuntza gasetarako hodi independente bat, galdara sukaldean jarrita balego; zuzenean estalkitik irteten dena.

– Despentsarik balego, derrigorrezkoa izango da beste hodi bat hura aireztatzeke.

– Errekuntza gasen aireztapena eta ke hustuketa ahal dela estalkitik egingo da; baina fatxadatik edo patioetatik ere egin ahal izango da aparteko kasuetan, bizilagunei kalterik eragin gabe.

Puntu guztietan indarrean dagoen legedia bete beharko da.

4. Etxebizitzaren antolaketa funtzionala:

Espazioen zatiketak ondoko baldintzak bete behar ditu:

a) Bainugelak beti esparru independenteak izango dira.  
b) Logela bat gutxienez, beti esparru independentea izango da.

c) Logela guztiek zirkulazio espazioetatik edo egongelatik sarbidea izan behar dute eta ez dute inolara beste logela batetik sarbide bakarria izango.

d) Komun eta bainugeletarako sarbidea zirkulazio espazioetatik egin behar da, salbuespen batekin: komun bat baino gehiago badago, horietako batek eskatzen den baldintza bete behar du eta horrek ahalbidetuko du gainerakoak logeletara gehitu ahal izatea, horietatik sarbide zuzenarekin.

– Altura libre mínima:

La altura mínima libre en toda unidad de vivienda será de 2,50 m, salvo en los aseos, pasillos y pequeñas dependencias de almacenamiento u otras estancias no destinadas a la estancia prolongada de personas, donde se podrá reducir a 2,25 m.

Asimismo, se admitirá que las piezas abuhardilladas se dediquen a la estancia de personas si su altura libre es igual o superior a la mínima establecida en un 40 % de su superficie.

Las puertas tendrán una altura mínima de 2,00 m.

3. Condiciones básicas de iluminación y ventilación:

a) Toda vivienda tendrá al menos dos huecos con apertura sobre la fachada exterior del edificio, que tendrá el destino de sala de estar en sus modalidades de sala-dormitorio o cocina-estancia. En este caso, el frente mínimo de fachada será de 6,00 m y los huecos de ventilación e iluminación serán, al menos, del 30 % de la superficie en planta del recinto.

b) Los espacios destinados a sala o cuarto de estar, dormitorio, cocina y comedor tendrán huecos de iluminación natural y de ventilación abiertos directamente al exterior –o en su caso con dimensiones adecuadas– y practicables al menos en 1/3 de su área. La extensión total de los huecos será, como mínimo, del 10 % de la superficie en planta de los recintos correspondientes, y en cualquier caso, no inferior a 1,00 m<sup>2</sup>.

c) Los cuartos de aseo tendrán huecos de ventilación al menos de 0,40 m<sup>2</sup> y los retretes (inodoro y lavabo) de 0,25 m<sup>2</sup>. Se podrán sustituir estos huecos por alguno de los siguientes sistemas:

– Ventilación por conducto, de acuerdo a las normas técnicas vigentes.

– Ventilación forzada por medios mecánicos que garanticen un caudal mínimo de extracción de 300 m<sup>3</sup>/h.

d) La cocina dispondrá de los siguientes elementos de ventilación y evacuación de humos:

– Un conducto destinado a la ventilación general del local para el que se admiten soluciones de colector general.

– Un conducto independiente destinado a la evacuación activada de humos y gases procedentes de la cocina. Cuando ésta esté incorporada a la estancia, dicho conducto deberá contar con un ventilador centrífugo que asegure la extracción de 300 m<sup>3</sup>/h.

– Un conducto independiente para los gases de combustión del calentador o caldera de agua caliente y calefacción, en el caso de que el mismo estuviera alojado en la cocina; con evacuación directa a la cubierta.

– Es obligatoria la existencia de otro conducto para la ventilación de la despensa, si la hubiera.

– La ventilación de los gases de combustión y evacuación de humos se realizará preferentemente a cubierta; aunque podrá evacuarse a fachada o patios en casos excepcionales, sin ocasionar molestias a los vecinos.

Se deberá cumplir en todos los puntos la normativa vigente.

4. Organización funcional de las viviendas:

La compartimentación de los espacios deberá cumplir las siguientes condiciones:

a) Los aseos serán siempre recintos independientes.  
b) Al menos un dormitorio será siempre recinto independiente.

c) Todo dormitorio tendrá acceso desde los espacios de circulación o desde la estancia y en ningún caso dispondrá de acceso único desde otro dormitorio.

d) El acceso a los aseos y cuartos de baño deberá efectuarse desde los espacios de circulación, salvo en el caso de que, habiendo más de un cuarto de aseo, uno de ellos cumpla la condición exigida, lo que permitirá que los demás puedan ser incorporados a dormitorios, con acceso directo desde ellos.

e) Lau logelako etxebizitzek derrigorrez bi bainugela oso izan behar dituzte.

5. Etxebizitza lokaletarako sarbideen baldintzak.

Puntu guztietan indarrean dagoen legedia bete beharko da.

a) Atariak:

– Atarian ezingo da beheko solairuko eta sotoko lokaletara sartzeko aterik ireki, baldin eta etxebizitzaren komunitatearekin zuzenean lotuta ez dauden erabileretarako erabiltzen badira.

– Horietan eraikineko erabilera guztiei dagozkien ur, energia elektriko, telekomunikazio eta gas kontagailuak kokatuko dira; baita posta banatzeko postontziak ere. Kontagailuak, ahal bada, sotoan koka daitezke.

Lehendik dauden eraikinetan, sarrerako atearen eta igogailuen eskailburuaren artean desnibela badago, arrapalak jartzea baimenduko da, nahiz eta Irisgarritasun Arauaren zehaztapen guztiak ez bete. Kasu berezi horietan, bakoitzerako konponbide egokienak bilatu beharko dira.

b) Eskailerak:

Eskailerak diseinatzeko kontuan izango da Irisgarritasunaren 68/2000 Dekretuan eta Eraikuntzaren Kode Teknikoaren oinarriko dokumentuetan eta indarrean dagoen Araudian zehaztutakoa.

c) Igogailuak:

Igogailuak diseinatzeko kontuan izango da Irisgarritasunaren 68/2000 Dekretuan eta Eraikuntzaren Kode Teknikoaren oinarriko dokumentuetan eta indarrean dagoen Araudian zehaztutakoa.

d) Teilatupeko trastelekuak:

Trasteleku gisa erabiliko diren teilatupeko lokalek sarbide bakarra izango dute eskailera kaxatik. Lokal horiek alboko etxebizitza batetik sarbidea dutenean, etxebizitzaren zabaltze gisa hartuko dira eta probetxamendu gisa konputagarri izango dira. Nolanahi ere, erregistroaren bidez etxebizitzaren bati lotuta egongo dira era zatiezinean.

e) Etxebizitzaren erabilera osagarria duten lokalak:

Sotoko eta erdisotoko lokalak dira, erabilera pribatueta zuzentzen direnak, esaterako, ikasketa, jolas eta bestelako jarduerak; debekatuta egongo da gela gisa erabiltzea.

Sarbide bakarra izango dute, alboko etxebizitzatik edo elementu komunetik.

Erregistroaren bidez etxebizitzaren bati lotuta egongo dira era zatiezinean.

**70. artikulua. Garajera zuzendutako lokalen baldintzak.**

Artikulu honetan jasotako arauak derrigorrez bete beharko dira, bai eraikin berrietan, bai lehendik dauden eraikinetan, horiek betetzea ezinezkoa dela espreski justifikatu ezean.

a) Izaera orokorrez, sestra azpiko solairutan ezarriko da garaje erabilera.

b) Ez da baimentzen sestra gainean banako garajeak ezartzea, familia bakarreko, bi bizitzako eta atxikitako etxebizitzetan izan ezik.

Salbuespen gisa, plan orokor hau indarrean jartzean lehendik dauden eta finkatuta dauden eraikinetan sestra gaineke banako garajeak jartzea onartuko da, betiere, alde aurretik justifikatuta komenigarria eta egokia dela, elkartzea eta bide publikotik sarbide bakarra egitea ezinezkoa dela, eta espazio publikoan eragin kaltegarririk ez dagoela.

e) Las viviendas de cuatro dormitorios deberán contar obligatoriamente con dos cuartos de aseo completos.

5. Condiciones de acceso a los locales de vivienda.

Se deberá cumplir en todos los puntos la normativa vigente.

a) Portales:

– En el portal no podrán abrirse puertas de acceso a los locales de planta baja y sótanos, si éstos se destinan a usos no relacionados de forma directa con la comunidad de viviendas.

– Se centralizarán en los mismos los contadores de agua, energía eléctrica, telecomunicaciones y gas correspondientes a todos los usos del edificio; así como los buzones de distribución de correspondencia. Los contadores podrán emplazarse, si fuera posible, en sótano.

En edificios existentes, cuando existan desniveles entre la puerta de acceso y el descansillo de ascensores, se permitirá la disposición de rampas aún cuando no cumplan en su integridad las determinaciones de la Norma de Accesibilidad. En estos casos particulares se deberán buscar las soluciones más adecuadas a cada caso en particular.

b) Escaleras:

Las escaleras se diseñarán de conformidad con lo determinado por el Decreto 68/2000 de Accesibilidad y en los correspondientes documentos Básicos del Código Técnico de la Edificación y Normativa Vigente.

c) Ascensores:

Las escaleras se diseñarán de conformidad con lo determinado por el Decreto 68/2000 de Accesibilidad y en los correspondientes documentos Básicos del Código Técnico de la Edificación y Normativa Vigente.

d) Trasteros bajo cubierta:

Los locales bajo cubierta que se habiliten como trasteros tendrán acceso exclusivo desde la caja de escalera. Cuando estos locales tengan acceso desde una vivienda contigua se considerarán ampliación de la vivienda y computables como aprovechamiento. En cualquier caso, se vincularán registralmente de manera indisoluble a alguna vivienda.

e) Locales de uso complementario de vivienda:

Son los locales de sótano y semisótano que se destinan a usos privados tales como actividades de estudio, juego, etc; estando prohibido habilitarlos como habitación.

Tendrán un acceso único, bien desde la vivienda colindante, bien desde el elemento común.

Deberán vincularse registralmente de manera indisoluble a alguna vivienda.

**Artículo 70. Condiciones de los locales destinados a garajes.**

Las normas contenidas en el presente serán de obligado cumplimiento tanto en los edificios de nueva planta, como en los existentes, salvo justificación expresa de imposibilidad de cumplimiento.

a) Con carácter general, se implantará el uso de garaje en las plantas bajo rasante.

b) No se permite la nueva implantación de garajes individuales sobre la rasante, con la excepción de su disposición en edificios de viviendas unifamiliares, bifamiliares y adosadas.

Excepcionalmente, previa justificación de su conveniencia e idoneidad, de la imposibilidad de su agrupación y disposición de acceso único desde la vía pública, así como de la inexistencia de afecciones perjudiciales en el espacio público, se admitirá la implantación de garajes individuales sobre rasante en edificaciones existentes y consolidadas a la entrada en vigor del presente Plan General.

Nolanahi ere, aukera horretatik kanpo geratzen dira Zumalakarregi kaleko 4., 6. eta 8. zenbakietako beheko solairuak, bai eta San Andres kaleko beheko solairuak ere.

c) Oin berriko etxebizitza eraikinetan, familia bakarreko, bi bizitzako eta atxikitako etxebizitzetan eraikinetarako azal dutako salbuespenarekin, beheko solairuan garajeak egin ahal izango dira, baldin eta bost plaza edo gehiago badituzte eta bide publikotik sarbide bakarra badute.

d) Oin berriko etxebizitzetan eraikinek ibilgailuentzako garajeak izango dituzte, lurzatiaren ezaugarrietatik horiek gauzatea bidezkoa ez dela justifikatzen den kasuetan izan ezik.

e) Etxebizitza bakoitzeko gutxienez 1,5 garaje plaza egingo dira, eta merkataritza etxabeen 100 m<sup>2</sup>-ko plaza 1.

f) Udalak garajeak instalatzeko baimena ukatu ahal izango du, baldin eta horietarako sarbidea, zirkulazio mailarengatik, espazio publikoak 4 m-tik gorako luzeran inbaditzeko behar-rengatik edo bestelako hirigintza arrazoi bereziengatik, desegokiak diren bideetatik egin behar bada. Horretarako, sarbideak ingurunearen funtzionaltasun publikoaren ikuspuntutik egokiak diren lekuetan jarriko dira beti.

g) Garaje erabilerara zuzendutako lokalei aplikagarri zaizkien funtzionaltasun baldintzak ondokoak dira:

Gutxienezko azalera eta neurriak:

Garajeen gutxienezko azalera erabilgarria 20 m<sup>2</sup>-koa izango da ibilgailu bakoitzeko, errodadura azalera barne.

Plazen gutxienezko neurriak:

– Plaza irekiak: 5,00 x 2,20 m.

– Plaza itxiak: 5,00 x 2,50 m.

– Minusbaliatuentzako plazak: 5,00 x 3,60 m.

– Gutxienezko altuera libre: gutxienezko altuera libre, lokal osoan, 2,20 m-koa izango da.

– Sarbideak:

Garajeetarako sarbideak 3,00 m-ko zabalera izango du gutxienez 30 plaza arteko garajeetan eta 5,00 m-koa gainerako garajeetan. Azken hori gutxienez 3,00 m-ko zabalera duten bi sarbide independentetan banatu ahal izango da.

Garaje arrapalek tarte zuzenetan % 18ko gehienezko malda izango dute; eta tarte okerretan, % 14koa.

Garaje guztiek, arrapala hasi baino lehen, erregelamenduzko sarbidearen zabalera bereko edo handiagoko gune bat edukiko dute eta gune hori gutxienez 5,00 m-koa izango da, azalera horretan erabilera publikoko azalera sartu gabe; % 4ko gehienezko maldarekin egingo dira.

Zoruaren eta sabaiaren arteko altuera libre gune horretan, estalita baldin badago, gutxienez 2,40 m-koa izango da eta habe azpiko atalasean punturik baxuenak, 2,20 m-koak.

Garajea higiezinako igogailuarekin edo eskailerarekin lotuta egon ahalko da, eta hala bada, sarrera-gune bat izan beharko du bi elementu horien tartean, Eraikuntzaren Kode Teknikoa - Suteen aurkako Segurtasuna betetzen duten itxitura automatikoko ate blindatuekin, familia bakarreko etxebizitzetako garajeak direnean izan ezik. Lokalak 30 ibilgailutik gora hartzen baditu, oinezkoentzako sarbide independente bat edukiko du, gutxienez 1,00 m-koa.

30 plaza arteko garajeetan, sarbideko arrapalaren ordezkari izango da, eta, kasu horretan, arrapala dagoenean eskatzen diren antzeko ezaugarriak dituen irteera gune bat egin beharko da.

Lerroko aparkaleku plazetara sartzeko errodadura pasabideak 3,00 m-koak izango dira; bateriako aparkalekuen kasuan, 4,50 m-koak izango dira.

En todo caso, quedan excluidas de esta posibilidad las plantas bajas de los edificios Zumalakarregi kalea 4, 6 y 8, así como las plantas bajas de San Andres kalea.

c) En edificios de vivienda de nueva planta, con la salvedad expuesta para los edificios de viviendas unifamiliares, bifamiliares y adosadas, la ejecución de garajes en planta baja sólo podrá efectuarse cuando éstos dispongan de una capacidad para cinco o más plazas y cuenten con un acceso único desde la vía pública.

d) Los edificios de vivienda de nueva planta dispondrán de garajes para vehículos, salvo que se justifique que no sea procedente su ejecución por las características de la parcela.

e) Se dispondrá de al menos 1,5 plazas de garaje por vivienda y 1 plaza por cada 100 m<sup>2</sup> de bajo comercial.

f) El Ayuntamiento podrá denegar el permiso de instalación de garajes en el caso de que se acceda a los mismos a través de vías que, por su nivel de circulación, por la necesidad de invasión de espacios públicos en una longitud superior a los 4 m, o por otras razones urbanísticas singulares, resulten inapropiadas para ello. Al efecto, se dispondrá siempre de los accesos en aquellos lugares que resulten más adecuados desde el punto de vista de la funcionalidad pública del entorno.

g) Las condiciones de funcionalidad aplicables a los locales destinados al uso de garaje son:

Superficie y dimensiones mínimas:

La superficie mínima útil de los garajes será de 20 m<sup>2</sup> por vehículo, incluida la superficie de rodadura.

Dimensiones mínimas de las plazas:

– Plazas abiertas: 5,00 x 2,20 m.

– Plazas cerradas: 5,00 x 2,50 m.

– Plazas reservadas a minusválidos: 5,00 x 3,60 m.

– Altura libre mínima: La altura libre mínima será de 2,20 m en el conjunto del local.

– Accesos:

Los garajes deberán tener un acceso con una anchura mínima de 3,00 m para garajes de hasta 30 plazas y de 5,00 m para el resto de garajes. Este último podrá desdoblarse en dos accesos independientes de 3,00 m de anchura mínima.

Las rampas de garaje tendrán una pendiente máxima, en tramos rectos del 18 %; y en los tramos curvos del 14 %.

Todos los garajes dispondrán de una meseta con una anchura igual o superior a la del acceso reglamentario, antes de comenzar la rampa, de 5,00 m, sin incluir en esta superficie la de uso público; se resolverán con una pendiente máxima del 4 %.

La altura libre suelo-techo en esta zona de meseta en el caso de estar cubierta, será como mínimo de 2,40 m y los puntos más bajos en el umbral bajo viga de 2,20 m.

El garaje podrá estar comunicado con el ascensor o escalera del inmueble, en cuyo caso deberá disponer de un vestíbulo de aislamiento intermedio, con puertas blindadas, que cumplan el CTE-SI, de cierre automático excepto cuando se trata de garajes de viviendas unifamiliares. Si el local alberga a más de 30 vehículos, dispondrá de acceso independiente para peatones de un ancho mínimo de 1,00 m.

En los garajes de hasta 30 plazas, podrá sustituirse la rampa de acceso por un elevador o montacargas, debiendo disponerse en tal caso una meseta de salida de características similares a las exigidas cuando se dispone de rampa.

Los pasillos de rodadura de acceso a las plazas de aparcamiento en hilera serán de 3,00 m; en caso de aparcamiento en batería serán de 4,50 m.

Sartzeko eta irteteko arrapalak eta zirkulazio kaleak eraikin ezberdinetako garajeetarako badira, beren funtzionaltasuna bermatuko duten elkarrekiko zortasunak eratzea eskatu ahal izango da; halaber, Udalak beren araubidea onartu aurretik, Jabetza-En Erregistroan inskribatu beharko dira.

#### Aireztapena:

Garajetara zuzendutako lokaletan, aireztapen naturala edo behartua behar beste zabaltasunez proiektatuko da lurrun eta gasen pilaketa eragozteko. Soil-soilik horien aireztapenerako aurreikusitako patio edo tximinien bitartez egingo da, eta patio edo tximinia horietara garajeetako baoak soil-soilik irekiko dira. Tximiniek metro batean gaindituko dute estalkiaren altuera.

Aireztapena diseinatuko da Eraikuntzaren Kode Teknikoaren oinarriko dokumentuetan eta indarrean dagoen Araudian zehaztatukoaren arabera.

Familia bakarreko etxebizitzetako garajeak: erantsitako garajeetan ondoko baldintzak onartzen dira:

- Plazen gutxieneko neurriak ondokoak izango dira: zabale-  
ra, 2,55 m eta luzera, 4,80 m.
- Sarbidearen eta, balego, arrapalaren gutxieneko zabalera  
2,70 m-koa izango da.
- Arrapalaren itxaron gunea, gutxienez, 2,70 m bider 3,50 m-  
koa izango da.
- Garajea zuzenean kanpoaldeari irekita egoteak dakarren  
aireztapen naturala onartuko da.
- Hustubidea edo sarera doan putzu iragazlea eduki behar-  
ko ditu.

### 5.7. LURZORU HIRITARREZINEAN APLIKAGARRIAK DIREN ORDENANTZA ARAUEMAILEAK

#### 104. artikulua. Nekazaritza eta abeltzaintza ustiapenak.

##### 1. Definizioa:

Halakotzat jotzen da landa luraren ustiapenerako ondasun eta eskubideen multzo antolatua.

Nekazaritza ekoizpeneko jardueratzat jotzen dira ondokoak:

- Nekazaritza jarduerak, lore hazkuntza, haztegi-tako labo-  
rantzak, mikologikoak eta hidroponikoak.
  - Baso jarduerak, zur eta egur erauzketak, baso landare eta  
fruitu edo hazien ekoizpena edota bilketa, eta azalera oinarri  
gisa mendia duten erauzketa jarduerak, meatze jarduerak eta  
hidrologikoak kanpo utzita.
  - Abeltzaintza jarduerak, honako hauek barne hartuta: he-  
gazti hazkuntza, untxi hazkuntza, erle hazkuntza eta arrautzak  
inkubatzen eta larugintzarako animaliak hazten dituzten edo  
espezie zinegetikoak hazten dituzten abeltziak.
  - Arrain hazkuntza eta itsas hazkuntzak.
- Ez dira nekazaritza eta abeltzaintza jardueratzat jotzen, bes-  
teak beste:
- Lurrik izan gabe, nekazaritza makinak salduz edo eskainiz  
edo normalean ematen den beste zerbitzuren bat eskainiz ne-  
kazaritza ekoizpenean parte hartzen duten nekazaritza enpresa  
osagarriak.
  - Txakurtegiak, animalia dendak, hiltegiak edo antzerakoak.
  - Parke zoologikoen ustiapena, gatibu nahiz erdi-gatibu dau-  
den animaliak dituztenak.
  - Konpainiako animalien haztegiak.

##### 2. Izapidetza:

Plan Orokor honetan xedatutakoaren ondorioetarako eta, be-  
reziki, nekazaritza eta abeltzaintza ustiapenei lotutako eraikin

En el caso de que las rampas de acceso y salida y las calles de circulación presten servicio a garajes de diferentes edificios, será exigible la constitución de servidumbres recíprocas que garanticen su funcionalidad y que, previa la aprobación de su régimen por el Ayuntamiento, habrán de inscribirse en el Registro de la Propiedad.

#### Ventilación:

En los locales destinados a usos de garaje, la ventilación natural o forzada estará proyectada con suficiente amplitud para impedir la acumulación de vapores y gases. Se hará por medio de patios o chimeneas previstos para su ventilación exclusiva, y a esos patios o chimeneas no abrirán más huecos que los del garaje. Las chimeneas sobrepasarán 1,00 m la altura de la cubierta.

La ventilación se diseñará de conformidad con lo determinado en los correspondientes documentos Básicos del Código Técnico de la Edificación y Normativa Vigente.

Garaje en viviendas unifamiliares: Se admiten las siguientes condiciones de los garajes anexos:

- Las dimensiones mínimas de las plazas serán de 2,55 m de anchura y 4,80 m de longitud.
- El ancho mínimo del camino de acceso y de la rampa, si la hubiese, será de 2,70 m.
- La espera o meseta de rampa será, como mínimo de 2,70 m por 3,50 m.
- Se admite la ventilación natural por comunicación directa del garaje con el exterior.
- Deberá disponer de desagüe o pozo filtrante a la red.

### 5.7. ORDENANZAS REGULADORAS APLICABLES EN SUELO NO URBANIZABLE

#### Artículo 104. Explotaciones agroganaderas.

##### 1. Definición:

Se entiende por tal, el conjunto organizado de bienes y derechos para la explotación del suelo rural.

Se consideran actividades de producción agraria las siguientes:

- Actividades agrícolas, incluidas la floricultura, los cultivos en vivero, los micológicos y los hidropónicos.
  - Las actividades forestales, extracción de madera y leña, la producción y/o recolección de plantas y frutos o semillas forestales y las actividades extractivas que, excluidas las mineras e hidrológicas, tengan como base superficial el monte.
  - Las actividades ganaderas incluidas la avicultura, cunicultura, apicultura y las de las granjas dedicadas a la incubación de huevos y la cría de animales para peletería o la producción de especies cinegéticas.
  - Las actividades de piscifactoría y los cultivos marinos.
- No se consideran actividades agroganaderas, entre otros:

- Las empresas auxiliares agrarias, que no poseyendo tierras, cooperen en la producción agraria mediante venta o prestación de maquinaria agrícola o cualquier otro servicio empleado usualmente.
- Las perreras, comercios de animales, mataderos o similares.
- La explotación de parque zoológico, tanto con animales cautivos como en semicautividad.
- Los criaderos de animales de compañía.

##### 2. Tramitación:

A los efectos de lo dispuesto en este Plan General y, particularmente, en lo referente a la implantación de edificaciones o ins-

edo instalazioak ezartzeari dagokionez, nekazaritza arloan eskuduna den Gipuzkoako Foru Aldundiko Departamentuaren baldintzak bete beharko dira. Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege orokorrean aurreikusitako jardueraren lizentzia lortu behar duten instalazio berriko abeltzaintza ustiapenek, indarrean dagoen araudia bete behar dute. Egun araudi hori 515/2009 Dekretua da, irailaren 22koa, abeltzaintzako ustiatzietako arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzen dituen. Ingurumena Babesteko Legean aurreikusitako jardura lizentzia lortzetik salbuetsitako jardueren zerranda ezartzen duen martxoaren 9ko 165/1999 Dekretuaren arabera jardura lizentzia lortzetik salbuetsitako abeltzaintza ustiatzietatik bete beharko dute dekretu horren IV. eranskinean ezarritakoa. Aipatutako dekretu horretan ere aldaketak egin zituen 515/2009 Dekretuak, irailaren 22koak (Hirugarren xedapen gehigarria).

### 3. Gutxieneko partzela eta partzelazioa:

Ez da onartuko emaitza gisa 1 Ha-tik beherako azalera duten finkak ematen dituen finken banaketa edo zatiketarik, baldin eta ez bada bermatzen finka hori mugakide diren beste partzela batzuetan sartuko dela.


### 4. Eraikuntza eta urbanizazio baldintza orokorrak:

a) Debekatuta dago nekazaritza eta abeltzaintza ustiapenari lotuta ez dauden etxebizitza berriak eraikitzea.

b) Eraikuntzek beteko dituzte araudi honetan ezarritako baldintza orokorrak.

c) Lehendik dauden etxebizitza eraikinak zabaltzea, hobetzea, konpontzea edo finkatzea:

– Nekazaritza edo abeltzaintza ustiapenean lehendik base-ri bat edo bizitoki erabilerako eraikinen bat baldin badago, zabaldu ahal izango da, gehienez ere, egungo oin azaleraren % 20, ondoko eskemen arabera baserriaren egungo profilaren lerroa mantenduko duen garapenarekin:



– Zabaltzeko beharra justifikatuko da, nekazaritza eta abeltzaintza unitatearen ustiapen beharren arabera.

– Lortuko den eraikinak gehienez bi etxebizitza izango ditu eta ez du inolako partzela zatiketarik ekarriko.

– Beste erabilera batzuetara zuzendutako eraikin osagarriak, ahal den neurrian, eraikin nagusiaren barruan edo honi erantsita kokatuko dira eta, haiek eraikitzerakoan eraikin nagusiarekin bat datozen material eta konponbide arkitektonikoak erabiliko dira.

– Konfort edo osasungarritasun baldintzengatik bizitoki erabileretatik banatzea beharrezko egingo luketen eraikuntzak, hala nola ukiulak, abeltzietak edo antzerakoak, libre ezartzea baimenduko da.

– Zabaltze, zaharberitze edo eraberritzeek haren gertuko txabolak, behin-behineko eranskinak eta teilapeak kentzea ekarriko dute, eraikuntza multzoaren eta bere inguruaren itxura hobetuko delarik.

– Bestalde, katalogoan sartutako interes elementuak existituz gero, kontserbatu edo berrerabili egin beharko dira, beti ere eraikina ordezkatzen bada. Kasu horretan, eraikina leku berean berreraikiko da.

talaciones vinculadas a explotaciones agroganaderas deberán ajustarse al condicionado del Departamento de la Excm. Diputación Foral de Gipuzkoa competente en materia de agricultura. Las explotaciones ganaderas de nueva instalación que requieran la obtención de la licencia de actividad prevista en la Ley 3/1998 de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, deberán cumplir la correspondiente normativa vigente. En la actualidad dicha normativa está representada por el Decreto 515/2009, de 22 de septiembre, por el que se establecen las normas técnicas, higiénico-sanitarias y medioambientales de las explotaciones ganaderas. Las explotaciones ganaderas exentas de la obtención de la licencia de actividad según el Decreto 165/1999, de 9 de marzo, por el que se establece la relación de actividades exentas de la obtención de licencia de actividad prevista en la Ley la Ley de Protección del Medio Ambiente deberán cumplir con lo establecido en el anexo IV de este mismo Decreto, que ha sido también modificado por el Decreto 515/2009, de 22 de septiembre (Disposición adicional tercera).

### 3. Parcela mínima y parcelación:

No se admitirán segregaciones o divisiones de fincas que den, como resultado, fincas con superficie inferior a 1 Ha salvo que se garantice su incorporación a otras parcelas colindantes.


### 4. Condiciones generales de edificación y urbanización:

a) Se prohíbe la edificación de nuevas viviendas no vinculadas a la explotación agroganadera.

b) Las edificaciones cumplimentarán las condiciones generales exigidas en esta normativa.

c) Ampliación, mejora, reparación o consolidación de los edificios de vivienda existentes:

– Cuando exista ya un caserío o edificación de uso residencial en la explotación agroganadera, se podrá ampliar con una superficie máxima de 20 % de la actual ocupación en planta, con desarrollo que mantenga la línea de perfil del actual caserío según los siguientes esquemas:



– Se justificará la necesidad de ampliación en función de las necesidades de explotación de la unidad agroganadera.

– La edificación resultante tendrá un máximo de dos viviendas y no supondrá ninguna división parcelaria.

– Las construcciones auxiliares, destinadas a otros usos, se dispondrán, preferentemente, englobadas o adosadas al edificio principal y, en su construcción, se utilizarán materiales y soluciones arquitectónicas que armonicen con aquel.

– Las construcciones que, por condiciones de confort o salubridad, como establos, granjas o similares, hicieran necesaria una separación de los usos residenciales, será autorizados en disposición exenta.

– Las ampliaciones, restauraciones o renovaciones conllevarán la desaparición de txabolak, añadidos precarios y tejavanas próximos al mismo, de forma que mejore el aspecto del conjunto y su entorno.

– Por otra parte, en caso de existir elementos de interés incluidos en el catálogo, deberán conservarse o reutilizarse, siempre que se proceda a la sustitución de la edificación. En este supuesto, el edificio se reconstruirá en la misma ubicación.

d) Hondamen egoeran dauden etxebizitzak berreraikuntza:

– Hondamen egoeran dauden etxebizitza erabilerara zuzendutako eraikinak berreraiki ahal izango dira, beti ere kokatzen den partzelak gutxienez 1,5 Ha-ko neurria badu. Gehienez ustiapen bakoitzeko bi etxebizitza eraikiko dira, bi familientzako eraikin gisa.

– Ezingo dira baimendu inola ere jatorrizkoen gailurrera iristen ez diren eraikinen hormen hondarrak eta, oro har, higiezin nagusiaren oin nagusia eta honen benetako eraikigarritasun osoa ezagutzen uzten ez duten hondarrak.

Ezingo da inola ere baserrien birgaitze gisa hartu, aurretik legez bizen erabilerara zuzenduta ez zeuden lurzoru urbanizaezinean kokatutako eraikinak bizitoki erabilerarako berriztatzea edo zaharberritzea.

– Berreraikuntza obrak, kasu guztietan, arau gisa, jatorrizko higiezinaren konposizio bolumentrikoa errespetatu beharko du.

– Kokapena aldatu ahal izango da, hori komenigarria bada higiezin, osasun edo paisaia arrazoiengatik.

– Berreraikuntzak partzelan dauden txabolak edo behin-behineko eranskinak desagertzea ekarriko du.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 30. artikuluan, «Baserriak berreraikitzea eta horretarako baimena ematea», ezarritakoa bete beharko da.

e) Lehendik dauden eraikinak ordezkatzea:

– Bizitoki eraikin bat baldin badago, justifikatutako araziengatik erreformatzeko edo birgaitzeko egoera egokian ez dagoena, hori eraikuntza berriko bizitoki eraikin batekin ordezkatzeko aukera dago, aurrekoaren leku berean edo honen inguruan 50 m-ko erradioan kokatuko dena; Udalak lekurik egokiena adierazi ahal du.

– Beren ezaugarri fisikoei dagokienez, eraikuntza berrietarako ezarritako zehaztapenak beteko dira, artikuluan honen 5, 6 eta 7. ataletan adierazten direnak.

f) Inolaz ere ez da eraikin baimenduko banaketaren ondoriozko partzeletan, 100 urteko errepikatze-denborako uraldiak osorik eragiten badie.

5. Nekazaritza eta abeltzaintza ustiapen berrien ezarpena:

Artikulu honen 1, 2, 3 eta 4 (a eta b) ataletan ezarritako baldintzetara egokituko dira.

6. Bizitoki erabilerak nekazaritza eta abeltzaintza ustiapen berrietan:

Gehienez bi (2) etxebizitza baimenduko dira ustiapen bakoitzeko, ondoko baldintzetan:

– Oinplanoko okupazioa:

Gutxienez: 100 m<sup>2</sup>.

Gehienez: 200 m<sup>2</sup> familia bakarrekoetan.

400 m<sup>2</sup> bi familiakoetan.

– Oinplanoko okupazio horretan eraikin berriaren barruan kokatuko diren erabilerak osagarriak, garajeak, lanabesetarako biltegiak, etab. sartzen dira.

– Ezarpen horietan, ez da onartuko txabola, teilape, etab. eraikiterik eraikin nagusitik kanpo; halaber, eraikuntza berriak ekarriko du partzelan aurretik lehendik egon litezkeen horrelako eraikinak desagertzea.

– Eraikuntza horietan nekazalturismoko erabilerak ezartzea baimenduko da.

– Beharrezko ur, saneamendu, argindar zerbitzuak, etab. eduki beharko dituzte.

– Dagokion planoan, Lurzoru urbanizaezinean kalifikazioan, Trantsiziozko landa paisaiaren Nekazaritza eta Abeltzaintza Gune eta Landazabal gisa mugatutako gunean bakarrik kokatuko dira.

d) Reconstrucción de viviendas en ruina:

– Podrá reconstruirse aquellas edificaciones destinadas a vivienda que se encuentren en ruina, siempre que la parcela en la que se sitúa alcance una dimensión mínima de 1,5 Has. El máximo será de dos viviendas por explotación, en edificación bifamiliar.

– En ningún caso serán autorizables los restos de muros de edificaciones que no alcancen la cumbre de las primitivas y, en general, cuantos restos no permitan conocer la planta general del inmueble general ni permitan reconocer la edificabilidad real total de éste.

En ningún caso se podrá considerar como rehabilitación de caseríos, la reforma o rehabilitación para uso residencial de edificaciones situadas en el suelo no urbanizable que no hubieran sido legalmente destinadas a usos residenciales con anterioridad.

– La obra de reconstrucción en todo caso deberá respetar, como máxima, la composición volumétrica del inmueble original.

– Podrá modificarse su ubicación si, por razones higiénico-sanitarias o paisajísticas lo hicieran recomendable.

– La reconstrucción conllevará la desaparición de txabolak o añadidos precarios que se ubiquen en la parcela.

Se deberá cumplir con lo establecido en el 30. «Reconstrucción de caseríos y su autorización» de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo.

e) Sustitución de las edificaciones existentes:

– En el caso de la existencia de un edificio residencial, que por razones justificadas no reúna las condiciones apropiadas para su reforma o rehabilitación, existe la posibilidad de su sustitución por un edificio residencial de nueva construcción que se ubicará en el mismo lugar que el anterior, o en un radio de 50 m alrededor de éste, pudiendo el Ayuntamiento determinar el lugar más idóneo.

– En sus características físicas se ajustará a las determinaciones fijadas para las nuevas edificaciones, que se señalan en los apartados 5, 6 y 7 del presente artículo.

f) En ningún caso se autorizarán edificaciones en parcelas resultantes de una segregación que resulten íntegramente afectadas por la avenida de 100 años de periodo de retorno.

5. Implantación de nuevas explotaciones agroganaderas:

Se ajustarán a las condiciones establecidas en los apartados 1, 2, 3 y 4 (a y b) del presente artículo.

6. Usos residenciales en las nuevas explotaciones agroganaderas:

Se autoriza un máximo de dos (2) viviendas por cada explotación, en las siguientes condiciones:

– Ocupación en planta:

Mínima: 100 m<sup>2</sup>.

Máxima: 200 m<sup>2</sup> en Unifamiliares.

400 m<sup>2</sup> en Bifamiliares.

– En esta ocupación en planta se incluyen los usos auxiliares, garajes, almacenes para aperos, etc. que se ubicarán dentro del edificio de nueva construcción.

– No se admitirán, en estas implantaciones, la construcción de txabolak, tejavanak, etc. fuera de la edificación principal y, así mismo, la nueva construcción conllevará la desaparición de este tipo de edificaciones que pudieran existir en la parcela.

– Se autoriza la implantación de usos de agroturismo en estas mismas edificaciones.

– Deberán disponer de los servicios de agua, saneamiento, electricidad, etc. necesarios.

– Se ubicarán, exclusivamente, en la zona Agroganadera y Campiña de Paisaje rural de Transición delimitada en el correspondiente plano, Calificación del Suelo No Urbanizable.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 31. artikuluan, «Baratzezaintza edo abelazkuntzako ustiakuntza ekonomiko bati lotutako oin berriko etxebizitza eraikitze egintzen lizentziak eta agiriak ematea», ezarritakoa bete beharko da.

7. Nekazaritza eta abeltzaintza ustiapenera zuzendutako eraikuntzak.

a) Kontuan hartuko dira zuzenean nekazaritza ustiapeneren erabileretara eta horien erabilera osagarrietara zuzendutako izaera finkoa edo egonkorra duten eraikuntza guztiak, esaterako, kortak, ukuiluak, sotoak, lastategiak, siloak, nekazaritza makinak gordetzeko eraikinak, etab., bizitoki erabilerak izan ezik.

b) Finkatutzat joko dira araudi hau onartu aurretik zeuden eraikinak, erabilera horietara zuzenduta daudenak eta «antolamendutik kanpo» ez daudenak.

Zabaltze edo ordezkatzeari dagokienez, artikuluko honen 7c atalean adierazten diren bizitoki erabilera ez duten nekazaritza eta abeltzaintza ustiapenera zuzendutako eraikin berrietarako ezarritako baldintzak aplikatuko dira.

c) Bizitoki erabilerak ez duten eta abeltzaintza ustiapenera zuzendutako eraikin berriak.

Artikuluko honen 7.a atalean ezarritako erabileretara zuzendutako eraikin berriek ondoko baldintzak beteko dituzte:

- Partzela hartzailearen gutxieneko azalera: 10.000 m<sup>2</sup>.
- Gehienezko okupazioa: partzela hartzailearen % 15, gehienez 1.000 m<sup>2</sup>.
- Gehienezko altuera: 7,00 m.
- Eraikuntzaren gehienezko luzera: 40,00 m.

Soil-soilik Trantsiziozko landa paisaiaren Nekazaritza eta Abeltzaintza eta Landazabal gunean kokatuko dira.

Higiene eta osasun baldintza egokiak eta Plan Orokor honean ezarritako bilketa eta arazketa baldintzak betetzea bermatu beharko da.

Gutxieneko tarteak (515/2009 Dekretua, irailaren 22koa, abeltzaintzako ustiatzietako arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzen dituena).

d) Berotegien ezarpena.

Ondoko baldintzetara egokituko da:

\* Gune hauetan kokatu ahal izango dira. Trantsiziozko eta Balio Estrategiko Handiko landa paisaiaren Nekazaritza eta Abeltzaintza Gunea eta Landazabala.

\* Oin bakarrean garatuko dira eta altuera gehienez 4,00 m-koa izango da.

\* Partzelaren mugarekiko tarteak 5,00 m-koa izango da eta beste landa finketan kokatutako eraikinekiko, 20,00 m-koa.

\* Partzelaren gehienezko okupazioa (ezarritako zehaztapenak eta okupazio indizeak berotegia fisikoki hartzen duen partzelari dagozkiola ulertuko da):

- < 5.000 m<sup>2</sup> % 20.
- > 5.000 m<sup>2</sup> eta < 20.000 m<sup>2</sup> 1.000 m<sup>2</sup> edo % 10.
- > 20.000 m<sup>2</sup> 2.000 m<sup>2</sup> edo % 5.

\* Hori ezartzeko, horri dagozkion gaietan eskumena duten erakundeen aldeko txostena eduki beharko da.

\* Okupazioa 2.000 m<sup>2</sup>-tik gorakoa bada, ingurumen eragina murrizteko neurriak aplikatu beharko lirateke eta horiek dagokion proiektuan jasoko dira.

Se deberá cumplir con lo establecido en el 31. «Otogamien- to de licencias y documentación de actos de construcción y edificación de nueva planta de vivienda vinculada a explotación económica hortícola o ganadera» de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo.

7. Construcciones destinadas a la explotación agro- ganadera.

